



Ander Gortazar Balerdi - @andergortazar
Arkitektoa

Rondo Praw Kobiet

Manifestazioaren lehen zutabea interes handirik gabeko eraikin neoklasiko batetik abiatu da, baina lehen ministroaren egoitza da eta ulergarria da hautua.

Aurrera jarraitu dute Ujazdowskie hiribidean barrena Piękna kalera iritsi arte. Ulica Piękna, “kale ederra” literalki, non oraindik zutik dirauten II. Mundu Gerra aurreko eraikin historiko batzuek. Kalean aurrera egitea Poloniako azken 75 urteetako arkitekturaren errepasoa egitea da: errealismo sozialistaren hastapenetako etxebizitza blokeak 7. eta 9. zenbakietan, mugimendu modernoaren bi adibide duin 16an eta 16B-an eta aro kapitalistako bulego-eraikin bana 18. eta 20. zenbakietan. Aurrera jarraitu dute manifestarietako Konstituzio plazara iritsi arte. Gerraosteko hirigintza sozialista-errealistaren paradigma da plaza: eskala monumentalak, arkitektura klasikoa eta harria. Eta neonezko argiak, horien artean bereziena agian Jan Mucharskiren “Siatkarka”, eskubaloia jokalaria bat plazako 5. zenbakiaren gainean. Jende saldoak, emakumeak gehienak, Marszałkowska kalean gora egin du neonezko argiak atzean utzita.

Bigarren zutabea Gaztelu plazatik abiatu da, alde zaharreko sarrera naturaletik. Sinbolismo handiko plaza da, bertan dagoelako hiriburutzak Krakoviatik Varsoviara eramanez Zygmun III.a erregearen monumentua. Senatorska kale historikoa hartu dute, Opera Nazionalaren egoitza den Antzoki Handiaren paretik pasatuz. 1833an eraiki eta II. Mundu Gerraren ondoren bererreraikitako antzoki neoklasikoan “Kameliadun dama” balleta ari dira ematen, Chopinen musikarekin, baina benetako ikuskizuna kalean dago, ez antzokian. Zutabea Marszałkowskara iritsi denean kalean beheara jo dute ma-

nifestarietako, eta parez pare dute orain Varsoviako *skyline*-a: Stalinen aginduz eraikitako Kulturaren eta Artearen Jauregiak agintzen du oraindik, baina lehiakideak erruz ugaritu zaizkio azken urteotan. Azkena, Norman Fosterren Varso Tower, Europar Batasuneko etxe orratzik altuena: nori alokatuko dituen oso garbi ez dudana milaka metro karratu bulego.

Mendebaldetik dator hirugarren zutabea, Zabiszy plazatik hain zuzen. Egiari zor, biribilgune honi plaza deitzea onbera xamarra da, baina nor gara gu, biribilguneen txapeldunok, halakorik kritikatzeko. Bertan dago Sobieski hotela, 90eko hamarkadako parranda kapitalistaren produktu zen arkitektura postmodernoaren ikur nagusia, Wrocławeko Sopol eraikinarekin batera. Kariño pixka bat badiot, aitortuko dut, 1989-1995 seiurtekoa «amesgaizto arkitektonikoa» izendatu zutela jakin nuenetik. Ondo-ondoan du gainera Warszawa Ochota tren geltoki ederra, pa-

raboloide hiperboliko formadun estalkia duen hormigoia eta beirazko harribitxia. Manifestarietako aurrera jarraitu dute, ekialderantz, Jerozolimske hiribide aski desoladorean barrena, erdialdera iritsi eta beste zutabeekin bat egin duten arte, Rondo Dmowskiegon.

XX. mende hasierako politikari ultrasoszialistaren izena darama plazak, baina izena aldatzeko proposamena mahai gainean dago: Rondo Praw Kobiet edo «Emakumeen Eskubideen Plaza». Abortua are gehiago murrizten duen legearen kontrako greba eguna amaitzen ari da eta protesten ikurra ikus daiteke Kulturaren eta Artearen Jauregiaren fatxadaren proiektatuta. Manifestarietako etxera itzultzeko hartuko dituzten tranbientan pantaila bat: «Emakumeak, zuekin gauden». •



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR BALERDI